

Sarritan galdetu diogu geure buruari gure hiria bizitzeko leku aproposa den. Hirietako bizi-kalitatea komunikabideetan maiz aipatzen den gaietakoa dugu, baina, nola jakin dezakegu gure hiria leku osasungarria den?

Jarduera honetan hiri bateko bizi-kalitateak zer adierazten duen eta zuen inguruko zer alderdi hobetu ahal diren eztabaidatu eta ados jartzea proposatzen dizuegu.

INGURUMENARI BURUZKO adierazleak neurtzen errazak diren ingurumen arazoekin zerikusia duten alderdiak dira; horiek denboran zehar izaten duten aldaketak gure inguruaren kalitatearen bilakaeraren noranzkoa zehaztea ahalbidetzen digu. Ingurumen adierazle horiei esker, hiri bateko arazoei antzeman, egoera hobetzeko ekintzak proposatu eta ekintza horien eraginkortasuna ebaluatu egin ahal da.

Gasteizko Udala 1995etik dabil garapen jasangarriaren helburuetatik gero eta hurbilago dagoen hiri bat eraikitzeko ahaleginetan. Hona hemen hiri horren ingurumenaren egoera neurtzeko erabiltzen diren adierazleetako batzuk:

- **1.** Urtean, *halamoduzko* kalitateko edota kalitate *txarre-ko* airea izaten den egunen kopurua.
- 2. Egunez, Osasunerako Mundu Erakundeak gomendatutakoak baino zarata maila altuagoak jasan behar dituen biztanleria.
- **3.** Hiriko autobusak erabiltzen dituzten bidaztien kopurua.
- **4.** Hiriaren erdialdera doazen kale nagusietan egunero zirkulatzen duten ibilgailuen kopurua.
- 5. Etxeetako ur kontsumoa, biztanleko eta eguneko.
- **6.** Zadorra ibaiak hiritik jasotzen duen karga organikoaren portzentajea.
- **7.** Etxeetako gas eta elektrizitate kontsumoa, biztanleko eta urteko.
- **8.** Ingurumen kudeaketaren ziurtagiria lortu duten hiriko enpresen kopurua.
- Etxeetan biztanleko eta eguneko sortutako hondakinen pisua.
- Birziklatutako eta sortutako hondakinen kopuruak ehunekotan.
- **11.** Etxebizitzak zaharberritzeko emandako lizentzia kopurua.
- **12.** Oinarrizko zerbitzuetara oinez joan daitezkeen biztanleen ehunekoa.

- **13.** Udalerrian dauden hegazti urtar habigileen espezie kopurua.
- **14.** Narriaturik zeuden eta lehengoratu diren guneen eremua.
- **15.** Nekazaritzako ingurumen programaren baten barruan sartu diren lurren eremua.
- **16.** Ingurumen informazioa eskatzeko kontsulta kopurua.
- **17.** Udalak antolatutako ingurumen hezkuntzako programetan parte hartzen duten eskola adineko biztanleen ehunekoa.



- Zertan dautza zuen hiriko ingurumen arazoak? Zer adierazleri deritzazue arazo horiek ebaluatzeko egokiena? Aukeratu interesgarrienak.
- Hartzen da aintzat gazteen iritzia hiriaren plangintza taxutzean?
- Zer eskakizun bete beharko lituzke zuen hiriak bizikalitate onekoa dela esateko?
- Ezer egiten ari da zuen udala jasangarritasunaren alde?
- Badago zuen inguruan hiriko bizi-baldintzak hobetzearen alde diharduen elkarterik?
- Zertan lagundu ahal du zuen institutuak ingurunea hobetzeko?

Horren ostean, komenigarria litzateke ondorioztapenak udal arduradunei helaraztea, bai eta zuen institutukoei hiriaren jasangarritasunaren alde lan egiteko zuen asmoa jakinaraztea ere.

Gehiago jakiteko

- HEWIT, N. Guía Europea para la Planificación de las Agendas 21 Locales. Eusko Jaurlaritza. Bilbo, 1998.
- Agenda 21eko aldizkaria. Boletín Agenda 21. (urteroko argitalpena) Gasteizko Udala. Gasteiz, 1998, 1999, 2000, 2001.